

EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
—
INSTITUT CULTUREL
BASQUE



Ekintzen bilduma 2025

 ETHNO
PÔLE



Bilduma sarean ikus:



Euskal kultur erakundeko diruztatzailleak (2025)



Aurkibidea

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA 2025EAN	6
1. ARDATZA: Bildu eta ikertu	8
1.1. Ahozko memoria bildu eta landu	9
1. ekintza - Ikus-entzunezko bilketa eta ahozko lekukotasunen tratamendu artxibistikoa	9
2. ekintza - Ipar Euskal Herriko ahozko eta ikus-entzunezko artxiboen balorazioa	9
3. ekintza - Euskal ahozko eta ikus-entzunezko oroimena lantzen duen kontsultagunearen kudeaketa.....	9
1.2. Memoria eta sorkuntza gurutzatu	10
4. ekintza - <i>Museoa Urtu</i> egitasmoaren bururapena	10
1.3. Hizkuntza eta jendartea: elkarreragina aztertu	11
5. ekintza - Esperimentazio soziologikoa: euskara, pastorala baten sorkuntza prozesuan.....	11
6. ekintza - 2024ko martxoaren 5eko ikerketa egunaren balorapena	11
7. ekintza - HERMÈS ikerketa programan parte hartzea	11
8. ekintza - Hizkuntza guttituetan ematen diren bi plaza antzerki herrikoi formen inguruan ikerketa proiektu konparatibo baten plantan jartzeari buruzko gogoeta (euskara eta friso hizkuntza).....	11
1.4. Kultura eskubideak ikertzea	12
9. ekintza - Tesia baten bururatzeko azken lanak	12
1.5. Ekitaldi zientifikoak antolatzea	12
10. ekintza - Mintzaldi zikloa antolatu.....	12
11. ekintza - Kolokioa antolatu	13
DIRU BILANA	14

2. ARDATZA: Transmititu eta komunikatu	15
2.1. Euskal kulturaren transmisiorako estrategia bultzatu	16
12. ekintza - <i>Euskal kultura bizi ezan/k</i> , euskal kulturaren sentsibilizazio eta transmisio ibilbideen diseinatzea eta esperimentatzea	16
13. ekintza - <i>Euskal kultura bizi ezan/k</i> mugaz gaindiko proiektuaren eraikitzea	17
14. ekintza - Gogoeta partaide ezberdinekin euskal kulturaren transmisioaz eta euskararekiko loturaz	17
2.2. Eskolei zuzendutako sentsibilizazio dispositiboak bultzatu	19
15. ekintza - <i>Zineskola</i> dispositiboaren koordinazioa	19
16. ekintza - <i>Collège au cinéma</i> dispositiboan parte hartzea	19
17. ekintza - <i>Idazleak Ikastetxeetan</i> dispositiboaren egituraketa	19
18. ekintza - Booktrailer lehiaketan esperimentazioa	20
19. ekintza - <i>Musikariak Ikastetxeetan</i> dispositiboaren plantan ezartzea	20
20. ekintza - <i>Etnologo gazte</i> dispositiboaren berritzea	20
2.3. Publiko berezi bati zuzendutako sentsibilizazio dispositiboak bultzatu	21
21. ekintza - Liburugintzako profesionalen zuzendu egunen ko-antolaketa	21
22. ekintza - Deskubritze tailerren antolaketa presondegi munduan	22
23. ekintza - Praktikaren eta sorkuntzaren inguruko <i>Arteen Arteen</i> hitzorduaren ko-antolaketa	22
2.4. Eduki editorializatuak sortu euskal kulturari sentsibilizatzeko eta hezitzeko	23
24. ekintza - Eke.eus ataria, euskal kulturaren aldeko sentsibilizazioaren eta heziketaren baliabide-plataforma	23
25. ekintza - Mintzoak.eus ataria, euskal ahozko memoriaren altxorren multimedia erakusleia	24
26. ekintza - «Eleketa» funtsaren balorapenak lurraldeka eta gaika	25
2.5. Aktualitate artistiko eta kulturala baloratu	26
27. ekintza - SORMEN - Euskal sorkuntza kultural eta artistikoari buruzko sareko aldizkariaren argitaratzea	26
28. ekintza - Euskal kultur eta arte aktualitatearen sareko agenda baten zabaltzea	26
29. ekintza - Artisten eta kultur eragileen sareko erreperorioaren optimizazioa	27
30. ekintza - Komunikazioaren garapena sare sozialetan eta hedapen zerrendetan	27
DIRU BILANA	28

3. ARDATZA: Egituratu eta lagundu	30
3.1. Euskal kulturaren ekosistema egituratu	31
31. ekintza - ELKARTUZ desmarxa kolektiboaren animazioa segitzea: Herri kulturaren transmisioa azkartu.....	31
32. ekintza - Elkartekideen jarraitzeko programa baten plantan ezartzea	31
33. ekintza - Artisten profesionalizazioa laguntzeko ibilbide baten asmatzea.....	31
3.2. Elkartekideen proiektuak sostengatu	32
34. ekintza - Gogoeta eta osagarritasun lana urteko egitasmo deialdiaren inguruan	32
35. ekintza - ELKI dispositiboaren bidez, sorkuntza amaturra laguntzea	32
36. ekintza - PASA dispositiboaren bidez, herri-transmisio proiektuak laguntzea	32
37. ekintza - HEDA dispositiboaren bidez, lurraldeko ekitaldiak laguntzea	32
38. ekintza - MUGI dispositiboaren bidez, mugikortasuna laguntzea Iparraldetik kanpo.....	33
3.3. Sorkuntza bultzatu	34
39. ekintza - Literatura sorkuntza egonaldi bikoitzaren antolaketa.....	34
40. ekintza - «EKE-Elkar literatura beka» berritzea	34
41. ekintza - Musika sorkuntza egonaldi bikoitzaren antolaketa.....	34
3.4. Hedapena sustatu	35
42. ekintza - <i>Ibilki</i> dispositiboaren zabalpena.....	35
43. ekintza - Euskal zinemaren programazioari laguntza	36
44. ekintza - Hego Euskal Herrirako mugikortasuna sostengatzea partaidetza desberdinei esker.....	36
DIRU BILANA	37
ELKARTEKIDEEN EGITASMOAK 2025	39
ERANSKINAK	46
2025eko elkartekideen zerrenda	47
2025eko diru bilana	50

Euskal kultur erakundeko barne antolaketa 2025ean

BILTZAR NAGUSIA

233 elkartekidek osatzen dute eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

BULEGOA

Lehendakaria Katixa DOLHARÉ-ÇALDUMBIDE anderea

Idazkaria Maritxu GOYHENECHÉ anderea

Diruzaina Juhane DASCON jauna

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

INSTITUZIOEN TALDEA

Estatuko ordezkariak

Jean-Marie GIRIER jauna,
Pirinio-Atlantikoetako prefeta
Matthieu DUHAMEL jauna,
Baionako suprefeta
Maylis DESCAZEUX anderea,
DRAC-eko zuzendaria

Akitania-Berria Eskualdeko ordezkariak

Frédérique ESPAGNAC anderea,
eskualdeko kontseilaria
Ande SAINTE-MARIE jauna,
eskualdeko kontseilaria
Ordezkoak:
Émilie DUTOYA anderea,
eskualdeko kontseilaria
Jean-Luc ARMAND jauna,
eskualdeko kontseilaria

Pirinio-Atlantikoetako Departamenduko ordezkariak

Maider BEHOTEGUY anderea,
departamenduko kontseilaria
Max BRISSON jauna,
departamenduko kontseilaria

Euskal Hirigune Elkargoko ordezkariak

Antton CURUTCHARRY jauna,
hizkuntza politika, kultura eta erkidegoko kultura ekipamenduetarako lehendakariordea
Joseba ERREMUNDEGUY jauna,
mugaz gaineko, Europako zein nazioarteko lankidetzetarako kontseilari ordezkaria

Eusko Jaurlaritzako ordezkaria

Ana LOPEZ ASENSIO anderea,
kultura zuzendaria

Nafarroako Gobernuako ordezkaria

Mikel ARREGI jauna,
hizkuntza politikaren zuzendaria

KULTURA ERAGILEEN TALDEA

Euskal kultura eragileen ordezkariak

Katixa DOLHARÉ-ÇALDUMBIDE, lehendakaria
Maritxu GOYHENECHÉ anderea, idazkaria
Juhane DASCON jauna, diruzaina
Agnès AGUER anderea
Patxi AMULET jauna
Marie BIDART anderea
Aritz BIDEGAIN jauna
Hélène CHARRITON anderea
Pierre LATASA-GOYA jauna
Marie-Andrée OURET anderea
Sandra POCHULU anderea

KONTUETARAKO KOMISARIOA

Pierre ARANGOITS jauna

Lantaldea

| ZUZENDARITZA & ADMINISTRAZIOA

Zuzendaria

Johañe ETCHEBEST jauna

Administrazioa, konduak eta giza-baliabideak

Elixabet MORTALENA anderea (ekainaren 30a arte)

Joana OYARÇABAL anderea (uztailaren 1etik goiti)

| KULTURA EGITASMOAK ETA BITARTEKARITZA SAILA

Sailaren koordinatzailea

Marion LASTIRI anderea

Egitasmo eta hedapen arduraduna

Frank SUAREZ jauna

Mediazio karguduna

Lucie LOHIER FANCHINI anderea

| ONDAREA & EUSKAL ETNOPOLOA SAILA

Etnologoa eta Etnopoloaren koordinatzailea

Terexa LEKUMBERRI anderea (maiatzaren 31a arte)

Argitxu CAMUS ETCHECOPAR anderea (ekainaren

1etik goiti)

Ondarearen balorapenaren arduraduna

Mathias OLASO jauna

Etnopoloaren misio karguduna

Alaia CACHENAUT anderea (apirilaren 30a arte)

Misio karguduna

Paola ETCHEMENDY anderea (ekainaren 2tik 30a arte)

Aprendizgoa

Ainhoa GOROSTIAGA anderea (irailaren 1etik goiti)

| TRANSMISIO & KOMUNIKAZIO SAILA

Sailaren & egitasmoen koordinatzailea

Jakes LARRE jauna

Internet egitasmoendako itzultzailea &

integratzailea

Fred BERRUET jauna

Komunikazio arduraduna

Lorentxa SARAGUETA anderea

Transmisio arduraduna

Maritxu ETCHETO anderea

1. Bildu eta ikertu

1.1. Memoria bildu eta landu

- 1.ekintza - Ikus-entzunezko bilketa eta ahozko lekukotasunen tratamendu artxibistikoa
- 2.ekintza - Ipar Euskal Herriko ahozko eta ikus-entzunezko artxiboen balorazioa
- 3.ekintza - Euskal ahozko eta ikus-entzunezko oroimena lantzen duen kontsultagunearen kudeaketa

1.2. Memoria eta sorkuntza gurutzatu

- 4.ekintza - *Museoa Urtu* egitasmoaren bururapena

1.3. Hizkuntza eta jendartea: elkarreragina aztertu

- 5.ekintza - Esperimentazio soziologikoa: euskara, pastorala baten sorkuntza prozesuan
- 6.ekintza - 2024ko martxoaren 5eko ikerketa egunaren balorapena
- 7.ekintza - HERMÈS ikerketa programan parte hartzea
- 8.ekintza - Hizkuntza guttituetan ematen diren bi plaza antzerki herrikoiei formen inguruan ikerketa proiektu konparatibo baten plantan jartzeari buruzko gogoeta (euskara eta friso hizkuntza)

1.4. Kultura eskubideak ikertzea

- 9.ekintza - Tesia baten bururatzeko azken lanak

1.5. Ekitaldi zientifikoak antolatzea

- 10.ekintza - Mintzaldi zikloa antolatu
- 11.ekintza - Kolokioa antolatu

DIRU BILANA

1.1 Ahozko memoria bildu eta landu

1. EKINTZA

Ikus-entzunezko bilketa eta ahozko lekukotasunen tratamendu artxibistikoa

«Eleketa» proiektuaren jarraitzea: hamabost elkarrizketa grabatu eta artxibatu dira. 2024ko «herri kultura eta plaza ikusgarriak» gaia landu da 2025ean ere, arreta berezia emanez zuberotar dantzari eta bere transmisioari (5 elkarrizketa). «Eleketa» proiektuaren batzorde zientifikoa 2025eko apirilean bildu ondotik, intereseko gai berria agertu da: soziabilizatzeko eta komertzio lekuak: bentak, ostatuak, kafetegiak eta jatetxeak. Gai horri buruzko bilketa hasi da, 3 elkarrizketekin. Azkenik, urtean egindako bertze grabaketa multzo bat azpimarratzekoa da ere: Angelun, «Servantes de Marie» kongregazioan diren seroren elkarrizketak. «Eleketa» funtsak elizako gizonen lekukotasunak baldin bazituen jadanik, elizako emazteen testigantza falta zen.

Partaidetza dinamika: Pirinio-Atlantikoetako departamendua (proiektuaren manatzailea), Euskal kultur erakundea (bilketaren egilea).

2. EKINTZA

Ipar Euskal Herriko ahozko eta ikus-entzunezko artxiboen balorazioa

«Mattin Larzabal» funtsa Baionako artxibategiari itzuli zaio trataturik. Bertzalde, «EKE» funtsa bildu da eta horren lanketa hasi da.

Partaidetza dinamika: Pirinio-Atlantikoetako Departamendua (Baionako artxibategia), EKE.

Oxtikenea funtsa (1999-2009)

2025ean, numerizatua izan ondoan, «Oxtikenea» funtsa sailkatua eta zerrendatua izan da. 1999-2002 urteetan Senpereko Oxtikenekoak elkarteko kideek, EKE-ren laguntzarekin, burutu kantu bazkarien soinu grabaketek osatzen dute funts hori. 2024ko agorrilaren 17an.

Partaidetza dinamika: EKE eta Oxtikenea elkartea.

3. EKINTZA

Ipar Euskal Herriko funts zaharren artxibatzea

Artxibo pribatu eta publikoen eskuragarritasuna erraztea da kontsultagunearen helburua (besteak beste, «Eleketa» funtsaren erabilpena). Izan norberaren lanerako edo pasartearen hedatzerako, publikoa lagundua da bere artxibo bilaketan. Artxibo-funtsak osoki kontsulta daitezke ere, Uztaritzeko EKEko egoitzan, hitzordu baten bidez. 2025ean, 30 eskaera tratatuak izan dira.

Publikoak dituen erabilpen-eskaerak tratatuak dira ere: artxibo-jabeen baimena ukan eta, edukien kopia numerikoa proposatzen zaie eskaera-egileei.

2025ean, Oxtikenea soinu-funtsa gehitu zaie kontsultagarri diren funtsei.

Partaidetza dinamika: EKE-k bideratu proiektua, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduekin (Baionako artxibategia) partaidetzan eta artxibo-kontsultagarrien jabeen laguntzarekin.

1.2 Memoria eta sorkuntza gurutzatu

4. EKINTZA

| *Museoa Urtu* egitasmoaren bururapena

Nader Koochaki artista museoko bildumekin lan egitera gonbidatua izan zen. Museoa galdezkatzeko eta Xiberoko artzainen lana nabarmentzeko, Euskal Museoan eta bortuetan ikusgai egonen den obra bat sortu du.

Maiatzaren 15ean, joareen ibilketaren abiatzea Baionako Euskal Museotik Xiberoko bortuetara. Euskal Museoan ospatu da egitasmoaren partaideen (EKE, Euskal Museoa, Xiberoko Sindikatu Batzordea, Gordailua, Euskal Hirigune Elkargoa) eta hainbat komunikabideren presentzian.

Maiatzaren 17an, Ahüzkiko portuan, artistak sortu dituen 54 zintzarriak artzainei banatu dizkie Bortüko besta denboran.

Udan zehar, artistak eta bere taldeak zintzarrien grabaketak egin dituzte Xiberuko mendietan.

2026an, *Museoa Urtu* erakusketaren aurkezpena Mauleko Ondarearen Etxean eta Baionako Euskal Museoan aurreikusia da, egitasmoari bukaera emanez.

Partaidetza dinamika: Nader Koochaki-ren proiektua, Baionako Euskal Museoak eta EKEk lagundua, Xiberoko Sindikatu Batzordearekin, Gordailua-rekin (Gipuzkoako Ondare Bildumen Zentroa), Euskal Hirigune Elkargoarekin, Akitania-Berria Eskualdearekin, Pirinio-Atlantikoetako Departamenduarekin eta Europar Batasunarekin partaidetzan.

1.3 Hizkuntza eta jendartea: elkarreragina aztertu

5. EKINTZA

Esperimentazio soziologikoa: euskara, pastoralaren baten sorkuntza prozesuan

2025ean Barkoxen egin zen pastoralaren kariatara, esperimentazio soziologiko bat partez eraman zen, ikerketa baliabide dedikatu eskasez. Esperimentazio hau Plazara kolektiboak eraman du, pastoraleko «Euskara batzorde»-ko kideen partaidetzarekin. Ikusgarriaren sorkuntzaren sei hilabeteetan, tresnak sortu ziren, alde batetik euskararen erabilpena garatzeko, eta bestaldek, euskara mintzatzen edo ulertzen ez dutenen hobeki integrazteko helburuarekin. 2025eko urriaren 25ean, emaitzen eta baliatu zen metodologiaren dibulgazio gaualdia antolatu zen Barkoxen, herritarrei eta interesatu oroei zuzendurik.

Partaidetza dinamika: Bordeaux-Montaigne unibertsitatea (IKER laborategia-CNRS-eko UMR 5478), Plazara kolektiboa, Etxahün elkarte (pastoralaren antolazailleek), EKE.

6. EKINTZA

2024ko martxoaren 5eko ikerketa egunaren balorapena

2024ko martxoaren 5ean Pessac-en iragan «Hizkuntzarekiko harremanaren balioa» ikerketa eguneko aurkezpenak «Lapurdum» aldizkarian argitaratzeko helburuarekin, parte hartzaile bakoitzari artikulu bat galdegain zaio.

Partaidetza dinamika: IKER laborategia, Bordeaux-Montaigne unibertsitatea, EKE.

7. EKINTZA

HERMÈS ikerketa programan parte hartzea

Bordeaux-Montaigne unibertsitateak, 2025ean abiatu den eta Sorbonne-Nouvelle unibertsitateak eramaten duen HERMÈS ikerketa programan parte hartzen du (kultura ondarearen zaintza). Programa honetan, hiru urte iraunen duten proiektuak aurreikusiak dira. Bakoitzak aurrekontu berezi bat ukan lezake, bai eta ere doktoregai edo post-doktorado baten laguntza. Bordeaux-Montaigne unibertsitateak hizkuntza guttituei buruzko proiektu bat auzetu du horren baitan, IKER-eko Argia Olçomendy-k eramanen duena. EKE, honen partaide da.

Partaidetza dinamika: Bordeaux-Montaigne unibertsitatea, IKER laborategia, EKE.

8. EKINTZA

Hizkuntza guttituetan ematen diren bi plaza antzerki herrikoï formen inguruan ikerketa proiektu konparatibo baten plantan jartzeari buruzko gogoeta (euskara eta frisoï hizkuntza)

«Fryske Akademy» eta Iker laborategiarekin lehen harremanen lotzea, gai honen inguruko kolaborazio bati buruz.

Partaidetza dinamika: EKE, Fryske Akademy eta UMR Iker.

1.4 Kultura eskubideak ikertzea

9. EKINTZA

| Tesia baten bururatzeko azken lanak

«Sorkuntza dantzatuak eta kultura eskubideak Euskal Herrian» tesia kari bildu datuen analisisa eta idazketa.

Partaidetza dinamika: LISST-CAS laborategia, Passages laborategia (ARI institutua), EKE.

1.5 Ekitaldi zientifikoak antolatzea

10. EKINTZA

| Mintzaldi zikloa antolatu

2025eko urtarrilaren 31ko mintzaldia

«Euskal literaturaren historia nola konda? Norabide historiografikoak», Jon Casenaveren eskutik, Baionako mediatekarekin ko-antolaturik, Irakurketaren Gauen kariatara.

Euskal literaturaren Historiaren aipamena, ikuspuntu historiko eta historiografikotik. Euskal literaturaren historialarien idatzi batzuen irakurketarekin tarteko, Pantxoa Etchegoin-en eskutik.

Mintzaldia aitzin, Jean Etxepareri dedikatu erakusleihoaren aurkezpena, Lapurdum Ondarea eta Arkitektura Interpretazio Zentroan Baionan.

50 pertsona

Lekua: Baionako mediateka (hiri barnea)

2025eko apirilaren 18ko mintzaldia

Mediabask-en 10. urteurrena kari antolatu zen laugarren eztabaidan, besta komiteen bilakaera eta erronkak aztertu ziren.

Hasteko, Xabier Itçainak historia eta tradizioen inguruko azalpenak eman zituen. Ondotik, herri desberdinetako hiru gaztek, beren esperientziak partekatu zituzten. Eztabaidan agertu zen erronka nagusiak biztanle berrien integrazioa eta tradizioen transmisioa direla. Lekuak: Uztaritzeko Lapurdi gela

2025eko ekainaren 12ko mintzaldia

«Lurrak errana: Australia zentraleko ahozko eta ikusmen artea», Jennifer Green-en eskutik, Jean Haritschelhar Katedrarekin ko-antolaturik (Bordeaux-Montaigne unibertsitatea eta Etxepare Institutua), Baionako Euskal Museoarekin partaidetzan.

Australiako basamortuetako ahozko artearen eta arte bisualaren aborigen praktika berezien aurkezpena. Harea istorioak modu tradizional bat dira, emazteek eta alabek hobetua. Harea samurrak hitzez, jestuz eta batzuetan zeinuz eta kantuz lagunduak diren idazkin dinamikoendako paleta bat eskaintzen du. Hauek bezalako ahozko arteak kultura baten hizkuntza eta musika ondarearen parte dira.

50 pertsona

Lekuak: Baionako Euskal Museoa

2025eko azaroaren 27ko mintzaldia

«Kabalkada diglosia egoeran», Peio Berterretche-ren eskutik, Baionako Kontserbatorioa («Arteen Arteen» festibala kari) eta Euskal Museoarekin partaidetzan. Kabalkadaren ibilbide historikoa egin ondoren eta honek, jendartearen bilakaeraren ondorioz, ezagutu aldaketak oroitarazi ondoren, Arrasateko unibertsitatean egin Masterraren baitan kabalkadaz eraman ikerketaren helburuak eta emaitzak aurkeztu dizkigu hizlariak. Lekorneko kabalkadaren adibidea harturik, egungo kabalkada baten parte hartzaileen perfila, motibazioak eta hizkuntza gaitasunaren ezagutzea hartu du helburutzat.

40 pertsona

Lekuak: Baionako Euskal Museoa

Mintzaldi guziak ikusgai dira eke.eus webgunean.

Pastorala: Herri bat proiektu bat

Ekintza ez da burutu. Ekintza hau «Memoria eta sorkuntza gurutzatu» ardatzaren barne zen.

Partaidetza dinamika: EKE, Baionako mediateka, Jean Haritschelhar katedra, Bordeaux-Montaigne

unibertsitatea, Baionako Euskal Museoa, Iparraldeko kontserbatorioa, Mediabask.

11. EKINTZA**| Kolokioa antolatu****2025eko azaroaren 5 eta 6ko kolokioa**

«Hizkuntza eta kultura biziberritze kontestu batean: bereiz ote daitezke?»

2025eko edizioak hizkuntzaren eta kulturaren arteko harremana biziberritze kontestu batean galdezkatu du: Zer heinetan hizkuntzak eta kulturak elgar eragiten dute? Lotura hau beti bistakoa ote da? Zerk funtzionatzen du, zerk ez? Munduan zehar eramaiten ari diren biziberritze kultural prozesuen erronkak, aukerak eta zailtasunak zeintzu dira? Ikerlari ezberdinak galdera horien galdezkatzera gomitatuak izan dira. Hitzartzeek nazioarteko eta bertako esperientzia eta dinamika ezberdinak agerian eman dituzte (Euskal Herrian, Europan eta haratago) eta hizkuntza zein kultura arloan diharduten ikerlari, instituzio eta aktoreen gogoeta elikatzeke edukiak ekarri dituzte. Horrez gain, kolokioa kari, film proiektio bat antolatu zen Atalante zineman (*Kneecap*) bai eta *Linguae Vasconum Primitiae* obraren inguruko bisita gidatua ere Baionako Euskal Museoan.

100 pertsona.

Lekuak: Atalante zinema, Baionako Euskal Museoa eta Baionako Arte Hiria.

Partaidetza dinamika: EKE, IKER laborategia, Passages laborategia, Bordeaux-Montaigne unibertsitatea, Euskaltzaindia, Euskal Museoa, Baionako Mediateka, Euskal Herriko goi mailako arte eskola.

Diru bilana

1. ARDATZA - BILDU & IKERTU

		Koordinazioa eta perspektibak	21349
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	26349
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	0
1.1 Ahozko memoria bildu eta landu	1	Ikus-entzunezko bilketa eta ahozko lekukotasunen tratamendu artxibistikoa	29867
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	25279
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	4588
	2	Ipar Euskal Herriko funts zaharren artxibatzea	17776
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	17776
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	0
3	Euskal ahozko eta ikus-entzunezko oroimena lantzen duen kontsultagunearen kudeaketa	9542	
	<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	9282	
	<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	260	
1.2 Memoria eta sorkuntza gurutzatu	4	Museoa Urtu egitasmoaren bururatzea	4201
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	4201
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	0
1.3 Hizkuntza eta jendartea: elkarreragina aztertu	5	"Euskara, eremu publikotik intimora" ikerketa programa: Barkoxeko esperimertzio soziologikoa	4799
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	2449
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	2350
	6	Martxoaren Seko ikerketa egunaren balorapena	1193
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	1193
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	0
	7	HERMES ikerketa programan parte hartzea	1324
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	1324
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	0
	8	Bi plaza antzerki herrikoien ikerketa konparatiboa	1458
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	458
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	1000
1.4. Kultura eskubideak ikertu	9	Tesia baten egiteko ikerketak	6684
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	4684
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	2000
1.5 Ekintza zientifikoak antolatu	10	Mintzaldi zikloaren antolaketa	8347
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	4577
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	3770
	11	Urteko kolokioaren antolaketa	39818
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	28850
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	10968

OROTARA 1. ARDATZA :	146 358 €
<i>Giza aberastasunaren balorazioa :</i>	126 422 €
<i>Proiektuei doazkien beste gastuak :</i>	24 936 €

2. Transmittitu eta komunikatu

2.1. Euskal kulturaren transmisiorako estrategia bultzatu

12.ekintza - *Euskal kultura bizi ezan/k*, euskal kulturaren sentsibilizazio eta transmisio ibilbideen diseinatzea eta esperimintatzea

13.ekintza - *Euskal kultura bizi ezan/k* mugaz gaindiko proiektuaren eraikitzea

14.ekintza - Gogoeta partaide ezberdinekin euskal kulturaren transmisioaz eta euskararekiko loturaz

2.2. Eskolei zuzendutako sentsibilizazio dispositiboak bultzatu

15.ekintza - *Zineskola* dispositiboaren koordinazioa

16.ekintza - *Collège au cinéma* dispositiboan parte hartzea

17.ekintza - *Idazleak Ikastetxeetan* dispositiboaren egituraketa

18.ekintza - Booktrailer lehiaketen esperimintazioa

19.ekintza - *Musikariak Ikastetxeetan* dispositiboa plantan ezartzea

20.ekintza - *Etnologo gazte* dispositiboaren berritzea

2.3. Publiko berezi bati zuzendutako sentsibilizazio dispositiboak bultzatu

21.ekintza - Liburugintzako profesionaleri zuzendu egunen ko-antolaketa

22.ekintza - Deskubritze tailerren antolaketa presondegi munduan

23.ekintza - Praktikaren eta sorkuntzaren inguruko *Arteen Arteen* hitzorduaren ko-antolaketa

2.4. Eduki editorializatuak sortu euskal kulturari sentsibilizatzeko eta heitzeko

24.ekintza - Eke.eus ataria, euskal kulturaren aldeko sentsibilizazioaren eta heziketaren baliabide-plataforma

25.ekintza - Mintzoak.eus ataria, euskal ahozko memoriaren altxorren multimedia erakusleihoa

26.ekintza - «Eleketa» funtsaren balorapenak lurraldeka eta gaika

2.5. Aktualitate artistiko eta kulturala baloratu

27.ekintza - SORMEN - Euskal sorkuntza kultural eta artistikoari buruzko sareko aldizkariaren argitaratzea

28.ekintza - Euskal kultur eta arte aktualitatearen sareko agenda baten zabaltzea

29.ekintza - Artisten eta kultur eragileen sareko errepertorioaren optimizazioa

30.ekintza - Komunikazioaren garapena sare sozialetan eta hedapen zerrendetan

DIRU BILANA

2.1 Euskal kulturaren transmisiorako estrategia bultzatu

12. EKINTZA

Euskal kultura bizi ezan/k, euskal kulturaren sentsibilizazio eta transmisio ibilbideen diseinatzea eta esperimintatzea

Transmisio strategiaren giltzarria, «Euskal kultura bizi» ibilbideak, pentsatuak dira eredu komun batean oinarrituz, (eredu horren egituratzeko helburuarekin):

- Euskal artista (edo obra bat, leku bat, erritu bat, plaza ikusgarri bat) batekin elkartzea: «elkarrizketa artistiko» baten bidez, parte hartzaileek artista ezagutuko dute, bere ibilbidea, erreferentziak, sorkuntza prozesua galdezkatuz.
- Elkarrizketa artistiko honen prestaketa ikasgelan: irakasleak, proposatuko zaizkion eduki pedagogikoetan bermatuz, ikasleen jakinmina piztuko du topaketa egunean, elkarrizketa aberats baten eramaiteko.
- Sorkuntza ibilbidea: topaketaren ondotik, ikasleak lagunduak izanen dira sorkuntza artistiko bat gauzatzeko, artistak proposatzen dituen prozesua, erreferentziak eta teknikak berriz inbertituz.

2025ean diseinu fase bat egin ondoren, 2025-2026ko ikasturtean lehen «Euskal kultura bizi ezan/k» ibilbideak eta dispositibo berri bat esperimintatu dira:

Bost sentsibilizazio ibilbide:

- **Antzerkia bizi ezan/ezak!** euskarazko antzerkia ezagutarazteko eta praktikatze ibilbidea da, Maika Etxekopar taula-zuzendaria eta antzerkilariarekin elkarlanean sortua. Ibilbidea Xiberoko bi eskolekin esperimintatua da:

Sohütako eskola publikoa (30 ikasle, sail elebidun eta elebakarretatik) eta Muskildiko eskola publikoa (20 ikasle, sail elebidun eta elebakarretatik).

- **Kabalkada bizi ezan/ezak!** Kabalkada euskaraz ezagutarazteko eta praktikatze ibilbidea da, Angeluarrak elkartarekin eta hiru dantza eta antzerki irakasleekin (Maitane Eyheramonho, Céline Renay eta Jokin Irungaray) elkarlanean sortua. Proiektuak Angeluko bost eskoletako 360 ikasle biltzen ditu: Jean Jaurès, Édouard Herriot, Évariste Galois, Stella Maris eta Kimua ikastola.
- **Literatura bizi ezan/ezak!** euskarazko literatura ezagutarazteko ibilbidea da, David Ondars antzerkilariarekin eta Élise Dilet idazlearekin elkarlanean sortua. Kanboko Errobi kolegioko bosgarren mailako gelarekin (27 ikasle) esperimintatua da.
- **Musika bizi ezan/ezak!** euskal musika euskaraz ezagutarazteko eta praktikatze ibilbidea da, Pantxix Bidart kantautorearekin elkarlanean sortua. Atharratzeko Pierre Jauréguy kolegioko bosgarren mailako gelarekin (10 ikasle) esperimintatua da.
- **Zinema bizi ezan/ezak!** euskarazko zinema euskaraz ezagutarazteko eta praktikatze ibilbidea da, Maitane Eyheramonho bideo-egilearekin eta Maryse Urruty aktorearekin elkarlanean sortua. Ibilbideak *Zineskola* egitasmoan egindako irudi heziketa saioen luzapena da, eta *Kerity* filmaren proiektioaren ondotik esperimintatua izanen da hiru eskolekin: Itsasuko San Josepe eskolako CM1 eta CM2 gelak, Baionako Jules Ferry eskolako CM2 gela bat eta Bidarteko Uhabia ikastolako CM2 gela batekin.

Sentsibilizazio dispositibo bat:

- **Arte plastikoak ikastetxeetan**, arte guneak euskaraz ezagutarazteko ibilbidea da: tTOK galeria (Uztaritze) eta Artetxe (Atharratze). Dispositiboa 3 eskolekin esperimentatua da: Uztaritzeko Louis Dassance ikastola, Atharratzeko eskola publikoa eta Basabüruko ikastola (Aloze-Ziboze-Onizegaine). Ikasturtean zehar, bi edo lau aldiz bisita gidatuak proposatuak izan zaizkie. Erakusketaren aurretik, bitartean eta ondoren erabiltzeko ustiapen pedagogikoa (kultur eragileekin elkarlanean sortua) eskaintzen zaie irakasleei.

Ibilbide berrien diseinatzea:

- Xiberoko maskaradak ezagutarazteko ustiapen pedagogikoaren prestaketa hasi da, **Maskaradak bizi ezan/ezak!** sentsibilizazio ibilbidearen abiapuntua izanen dena.

Helburuak: Euskal kultura ezagutaraztea eta bizi araztea, bereziki batere edo gutti ezagutzen duen publikoari (gazteak, heldu berriak...). Euskararen erabilerari zentzua eman, euskal artistekin elkarrekintzak sortuz eta euskara ideien eta emozioen bektore gisa erabiliz.

Partaidetza dinamika: EKE, identifikatuak dituen artista eta irakasleekin eta beste partaide batzuekin: Hezkuntza Nazionalako Departamenduko Zerbitzuak, Seaska, Pirinio-Atlantikoetako Irakaskuntza Katolikoa, IKAS.

13. EKINTZA

Euskal kultura bizi ezan/k mugaz gairdiko proiektuaren eraikitzea

2025-2026ko ikasturtean, «Euskal kultura bizi ezan/ezak!» ibilbide bat mugaren bi aldeetan esperimentatua da POCTEFA HEZHI programaren baitan. **Musika bizi ezan/ezak!** ibilbidearen hiru faseak euskal musika euskaraz ezagutarazteko eta praktikatuzteko pentsatua izan da, eta Pantxix Bidart kantautorearekin elkarlanean sortua izan da.

Formakuntza arratsalde bat eskainia izan zaie Plentziako Uribe-Kosta ikastetxeko irakasleei (Bizkaia) eta Xiberoko Lizeoko irakasleari. Topaketa Donostiako Tabakalera kultur gunean egin zen, 2025eko azaroaren 5ean, eta ibilbidea abiarazteko sortutako ustiapen pedagogikoa aurkeztu zitzaion.

Ondotik, Pantxix Bidart bi geletara (DBH4 eta bigarrenak) joan da ikasleekin batera «Euskararen mapa» gaia lantzerako ikasleekin, bi ikastetxeek kantu komun bat sortu zezaten.

Mugaz gairdiko proiektuaren beste helburua, Iparraldeko eta Hegoaldeko gazte euskaldunen arteko loturak sendotzea da. Ibilbidean zehar, auto-erretiratu, soinu zatien eta testuen trukaketak eginen dira. Ibilbidea maiatzean bukatuko da, Atabal-eko (Biarritz) grabazio estudioetan eginen den topaketa egun batekin. Ikasleek elkar hobeki ezagutzeko aukera izanen dute, tailerren bidez eta beren kantuaren grabazio saioan.

Ekintza honekin batera, EKEk POCTEFA HEZHI programako beste eragileekin parte hartzen du, eleaniztasuna sustatzeko ekitaldi eta hitzaldien antolaketan.

Helburuak: Hegoaldeko eta Iparraldeko gazteen arteko harremanak sortu, kultura eta hizkuntza amankomunean bermatuz. Hegoaldeko sentsibilizazio dispositibo ereduak garatu. Iparraldeko eta Hegoaldeko hezkuntza komunitateen arteko harremanak sendotzea.

Partaidetza dinamika: EKE eramaile, artistekin eta erakasle identifikatuekin. Dijitalitatea, Hegoaldeko partaide eta Euroeskualdea HEZHI POCTEFAren koordinatzaile.

14. EKINTZA

Gogoeta partaide ezberdinekin euskal kulturaren transmisioaz eta euskararekiko loturaz

Euskal kulturaren transmisioa eta honek euskararen erabilerari ekartzen diona, partaide desberdinekin partekatua den gogoeta da.

- Arte Hezkuntza eta Praktiken Departamentuko eskema tailerretan eta Euskal Herriko Iparraldeko Kontserbatorioko talde-lanetan parte hartzea, musika eta dantza tradizionalari buruz.
- EEPekin eta Hezkuntza Nazionalako Departamenduko Zerbitzuekin artista eta irakasleen arteko topaketa-egun bat antolatzea, EEPeko Ikastetxeen Proiektu Deialdiari erantzuten dieten proiektuak muntatzeko.

2. Transmittitu eta komunikatu

2.1. Euskal kulturaren transmisiorako estrategia bultzatu

- Euskal dantza ibilbidea egituratzea, Euskal Herriko Kontserbatorioko musika eta dantza tradizionalako departamentuarekin.
- «Pass Culture» akreditazioa lortzea.
- Hezkuntza Nazionalako Departamenduko Zerbitzuekin elkarlanean aritzea, «Antzerkia bizi ezan/ezak!» ibilbidea garatzeko, helburuak baitira frantses eta euskara ikasgaietan, nozio eta erreferentzia kultural berdinen lanketa esperimentatzea eta euskarazko antzerki ibiltaria sortzea ikasle euskaldun eta frantsesdunen artean.
- Hezkuntza Nazionalako Departamenduko Zerbitzuekin hausnarketa hastea, elkarrekin «Euskal kultura bizi ezan/ezak» ibilbideak sortzeko, euskararen erabilerari gainbalio azkar bat ekartzeko xedearekin.
- Euskal Hirigune Elkargoko Hizkuntza Zerbitzuak proposatutako herrietako euskara teknikarien formakuntza jarraikian parte hartzea (solstizioei lotutako errituei buruzko saioak).
- Bilkurak antolatuak izan dira erakundeekin, «Euskal kultura bizi ezan/ezak!» ibilbide batzuk eskubide komunen baliabideetan sartzeko, hala nola EAC edo IPD bezalako egitasmoetan.

Partaidetza dinamika: EKE animatzaile eta aholkulari, Iparraldeko kontserbatorioak, EEPk, formakuntza egiturek eta instituzioek eraman gogoetetan.

2.2 Eskolei zuzendutako sentsibilizazio dispositiboak bultzatu

15. EKINTZA

| Zineskola dispositiboaren koordinazioa

Ustiapen pedagogikoen aurkezpena irakasleei, 2025eko urtarrilean antolatu formakuntza egunaren kariatara.

Euskarazko hiru animazio filmen proiektzioa, *Grufaloo*, *Teresa eta Galtzagorri*, eta *Phantom Boy*, lehen mailako ikasleentzat (85 ikastetxeko 4057 ikasle), martxotik apirilera, lurraldeko hamaika zinema gelatan. Bi film berriren hautaketa 2025-2026 ikasturterako: *Kerity*, *ipuinen etxea* eta *Laban, mamu txikia*, eta ustiapen pedagogikoaren sorkuntza, aholkulari talde baten parte hartzearekin.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, Cinéma et Cultures, Cinévasion, zinema gela parte hartzaileak, IKAS euskal pedagogia zerbitzua, Hezkunde Nazionala, MadamaK kolektiboa eta Zineuskadi-rekin partaidetzan.

16. EKINTZA

| Collège au cinéma dispositiboan parte hartzea

Aupa, Etxebeste! filmaren inguruan, bitartekaritza ekintzak plantan ezartzeko laguntza.

2025-2026 ikasturteko filmen hautaketa batzordean parte hartzea.

Hautatutako filma: *Mugagabea* labur-metraia programa.

- *Dortoka uhartea*, Maru Solores
- *Hubert leblonen azken hegaldia*, Koldo Almandoz
- *Ximinoa*, Itziar Leemans
- *Hitzak*, Josu Martinez
- *Amona Putz*, Telmo Esnal

Ikasle eta irakasleei zuzendu euskarri pedagogikoen sortzeko laguntza.

Partaidetza dinamika: Cinévasion elkarteak eraman dispositiboa, EKE aholkulari eta diru partaide.

17. EKINTZA

| Idazleak Ikastetxeetan dispositiboaren egituraketa

Dispositiboaren esperimentazioaren segitzea, ikasleei idazle edo ilustratzaile euskaldun batekin trukatzeko parada emateko.

- Topaketa Itxaro Borda eta Maddi Ane Txoperena-rekin: saio bat Baionako Bernat Etxepare lizeoko terminaleko ikasleekin.
- Topaketa Asisko Urmeneta-rekin: 3 saio Baionako Bernat Etxepare lizeoko leheneko ikasleekin, eta Ziburuko eskola publikoko 1., 2. eta 3. urteko ikasleekin.
- Topaketa Idoia Rodriguez Mondragon-ekin: bi saio Hazparneko Elhuyar kolegioko 4.eko ikastalde batekin eta Baionako Marracq kolegioko 3.eko ikastalde batekin.

Egitasmo honen inguruko lan bilkuren animazioa, idazle, irakasle eta dokumentalista batzuekin.

Idazle-ikasle topaketaren prestakuntzari buruzko dokumentu pedagogikoen sortzea.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, IKAS euskal pedagogia zerbitzuarekin, ikastetxeekin eta idazleekin partaidetzan.

18. EKINTZA

| Booktrailer lehiaketan esperimentazioa

Euskarazko booktrailerrak sortzea helburu duen dispositibo esperimental baten segitzea (2024-2025 ikasturterako), Kanboko Xalbador, Hendaiaiko San Bixente, Ziburuko Piarres Larzabal eta Donibane Lohizuneko kolegioetako 5.eko 6. klasetan (160 ikasle). Bi topaketan antolaketa:

- Ekainaren 13an Hendaian, San Bixente, Piarres Larzabal eta Maurice Ravel kolegioen artean.
- Ekainaren 24an Kanbon, Xalbadorreko 3 gela artean.

Topaketen egunetan: booktrailerren proiektzioak zinemagelan, euskarazko liburu bat erosteko 15€-ko bonu baten banaketa ikasleka, eta liburuaren erosketan egunean berean, euskarazko gazte literaturaren inguruko jokoak.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, IKAS euskal pedagogia zerbitzuarekin eta irakasleekin partaidetzan.

Artxibategiak) eta 2023ko edizioko ikasleek azaroan egin «Etnologo gazte» dispositiboaren aurkezpenean Bidasoako Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoan (FICAB), Irunen, bildu lekukotasunetako baten proiektzioarekin.

Partaidetza dinamika: Pirinio-Atlantikoetako Departamenduak (Artxibategia) eraman egitasmoa Euskal kultur erakundearekin partaidetzan.

19. EKINTZA

| Musikariak ikastetxeetan dispositiboa plantan ezartzea

Hainbat topaketa antolatuak izan dira ikasle eta artista musikari euskaldunen artean, kolegio eta lizeo ezberdinetan, obrak ezagutzeko eta artisten ibilbideei buruzko gogoetak trukatzeko.

- 2024-2025 ikasturterako: 22 topaketa, 17 ikastetxe desberdinetan.
- 2025-2026 ikasturterako: 20 topaketa, 14 ikastetxe desberdinetan (5 2025eko irail eta abendu artean).

Partaidetza dinamika: EKE-k eta Giltzaera elkarteak Dijitalitatea egiturarekin (Gotzon Barandiaran) eta ikastetxeekin elkarlanean eraman proiektua.

20. EKINTZA

| Etnologo gazte dispositiboaren berritzea

2025ean, dispositiboaren prestaketa (prestakuntza bilkurak, lurraldeko ikastetxeei dispositiboaren ezagutaraztea), Baigorriko Donostei kolegioko ikastalde batekin, moduloa 2026. urtearen hastapenean abiarazteko.

Parte hartzea antolatzaileek (Departamenduko

2.3 Publiko berezi bati zuzendutako sentsibilizazio dispositiboak bultzatu

21. EKINTZA

Liburugintzako profesionali zuzendu egunen ko-antolaketa

Bi egunen antolaketa BILKETA sareko profesionalentzat (liburuzainak, dokumentalistak), eta zabalago, liburuaren eta irakurketaren alorrari interesatzen zaion edonorentzat (irakasleak, ikasleak, lehen haurtzaroko profesionalak...):

«Euskal emigrazioa Ameriketara: bizirik dagoen historia»

Sarako Idazleen Biltzarraren kariatara antolatua.

Data: 2025eko apirilaren 22a

Tokia: Sarako Harpeak

Antolatzaileak: Euskal kultur erakundea, BILKETA Sarea, Sarako Biltzarra, Biblio64

Parte hartzaileen kopurua: 44

Egitaraua:

- «Euskal emigrazioaren ibilbide historikoa» gaiaren inguruko mintzaldia, Oscar Alvarez-en eskutik (Historia irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean, Gasteiz).
- «Euskal emigrazioaz gaurko ikerketa, historiografia, eta irakaskuntza» gaiaren inguruko mintzaldia, Argitxu Camus Etchecopar-en eskutik (Historia eta Euskal Ikasketetan doktorea, Iker laborategian ikerlari asoziatua, Baiona).
- «Emigrazioaren gaia euskal literaturan» gaiaren inguruko mintzaldia, Jon Casenave-ren eskutik (Bordeaux-Montaigne unibertsitatean euskal literatura irakasle emeritua).

Tailerrak:

- *Euskaldunen aztarnak munduan* erakusketa: bisita gidatua (Argitxu Camus Etchecopar).
- Euskal emigrazioaren bibliografiaren aurkezpena: gaurkoak eta historikoak (Bilketa eta elkar).
- Lekukotasunak «Mintzoak.eus» Ipar Euskal Herriko ahozko memoriaren atarian (EKE).

«Denak berdin, denak ezberdin, eta zu?»

«Ikusi Mikusi» festibalaren kariatara antolatua.

Data: 2025eko urriaren 10a

Tokia: Sarako herria

Antolatzaileak: Euskal kultur erakundea, BILKETA

Sarea, Mari Gorri, Biblio64.

Parte hartzaileen kopurua: 25

Egitaraua:

- Haur eta Gazteen baitan irakurtzeko ohitura sustatzeko lantegia, Galtzagorri elkarteko bi adituk animaturik.
- Festibalaren ikuskizun edo tailerretan parte hartzea (bat edo bi hautatzeko, programatuak direnen artean).
- Azokaren itzuli librea.
- «(H)egoaren (h)egiak» mahai-ingurua, Ainize Madariagak animaturik: Mireia Delgado, antropologo, pedagogoa eta bitartekari literarioa (Galtzagorri); Ainara Lopez Zarco, Pareanelkartearen langilea (genero berdintasuna); Idoia Rodriguez, genero pedagogoa, idazlea (*Euritan* eleberria); eta Paula Estevez, ilustratzaile eta komikigile, TUPUST kolektiboko kidea.

22. EKINTZA**Deskubritze tailerren antolaketa presondegi munduan**

Dantza eta musika tailerren antolaketa Baionako presondegian.

Egitaraua:

- Uztailaren 2a (arratsalde): dantza tailerra Iparraldeko Dantzarien Biltzarra-rekin (IDB). Parte hartzaileak: Aintzane Garat eta Elorri Francesena.
- Uztailaren 3a (goizez): musika tailerra Bilaka-rekin. Parte hartzaileak: Xabi Etxeberri eta Patxi Amulet
- Uztailaren 3a (arratsalde): dantzaren eta musikaren inguruko tailer amankomuna IDB eta Bilaka-rekin. Parte hartzaileak: Aintzane Garat eta Patxi Amulet.

Parte hartzaileen kopurua: 6 eta 10 preso artean tailer bakoitzean.

Partaidetza dinamika: EKE ko-antolatzaile, presondegietako gizarteratze zerbitzuarekin partaidetzan.

23. EKINTZA**Praktikaren eta sorkuntzaren inguruko *Arteen Arteen*, hitzorduaren ko-antolaketa**

Kontserbatorioko ikasleei, dantza taldeei eta musika eskolei zuzendua den euskal kulturaren sorkuntzari, praktikari eta transmisioari buruzko *Arteen Arteen* ekitaldiaren ko-antolaketa (2025eko azaroaren 25etik 29ra): topaketak artistekin, musika, dantza eta antzerki tailerrak, amaturrei toki berezia utzi dieten ikusgarrien programazioa.

Partaidetza dinamika: EKE ko-antolatzaile, Maurice Ravel Kontserbatorioarekin, Iparraldeko Dantzarien Biltzarrekin eta Malandain Ballet Biarritz-ekin partaidetzan.

2.4 Eduki editorializatuak sortu euskal kulturari sentsibilizatzeko eta hezitzeko

24. EKINTZA

Eke.eus ataria, euskal kulturaren aldeko sentsibilizazioaren eta heziketaren baliabide-plataforma

Kultur edukien eguneratzea eta sortzea

Lau kultura gai nagusi landu dira bereziki atarian 2025. urtean: dantza, kantua eta musika, inauterien garaiko ohiturak eta euskal literatura.

Guilcher ikusentzunezko dantza-funtsaren balioa agerian ematen dituzten artikulua

2025eko urriaz geroztik, Jean-Michel Guilcher (1914-2017) ikerlariaren bideo-artxibo funtsa (2023an bere oinordekoek EKE-ri utzia) deskribatzen dituzten artikulua eta filmak argitaratzen dira, atariaren atal berezi batean (<http://guilcher.eke.eus>).

Jon Iruetagoiena (Maritzuli konpainia - Miarritze) eta Aritz Ibañez (Duguna dantza taldea - Iruñea) dantzariak aritu dira artikulua idazten.

Lan hori Dantzan (Eibar - Gipuzkoa) elkartearekin lankidetzan daramagu.

Oxtikenekoak elkarteak bildu kantuei buruzko txostena

Senpere aldean 2000 urteetan eraman kantu bilketari buruzko dozier berezia osatu dugu <http://oxtikenea.eke.eus> helbidean (bilketaren historikoa, funtsen aurkezpena, argazki-bildumak, kantuen zerrenda, bibliografia...).

XX. mendeko Senpere aldeko kantutegiaren lekuko diren grabaketak...

Euskal kantu partitura bilduma gero eta aberatsagoa
Euskal kultur erakundearen eta Iparraldeko Abesbatzen Elkarteen arteko lankidetzari esker, gure atarian kontsultagarri den partitura bilduma frango aberastu da 2025ean (Thierry Elbert funtsa erantsi baitzaio, besteak beste).

Orotara, gaur egun 1000 inguru dira zonbait musikariek Euskal kultur erakundearen webgunean denen eskura jarri nahi izan dituzten partiturak.

Azpimarratu behar da Frédéric Sorhaitz Iparraldeko Abesbatzen Elkarteko lehendakariaren ezinbesteko parte hartze eta gainbegiradarekin eramaten dela <http://partiturak.eke.eus> helbidean kontsulta daitekeen lan hori. Sare sozialetan ere zabaltzen dira, baita EKE-ren hileko berriraperean ere.

Neguko eta inauterietako ospakizunen ulertzeko baliabideak

Thierry Truffaut antropologoarekin lankidetzan (Patxi Beltzaiz argazkilariarekin 2025ean idatzi duen *Ilunpetik argira*, *Ihauteri* liburuaren argitaratzearen kariatara), neguko eta inauterietako Euskal Herriko ohiturei buruzko atal berri bat ireki dugu <http://ihauteriak.eke.eus> helbidean. Gaiari buruzko hainbat baliabide eman nahi ditu agerian.

Denborarekin aberastuak izanen diren bost atal kontsultagarri dira dagoeneko (artikulua eta gaikako txostenak, ahozko lekukotasunak, dokumentu bankua, errituak ikasgelan lantzeko proposamenak, gertakari erritualen agenda), baita ere gaikako bilaketa baten egiteko bilduma.

2. Transmititu eta komunikatu

2.4. Eduki editorializatuak sortu euskal kulturari sentsibilizatzeko eta heitzeko

Literatura obra gomendio katalogo bat, irakurzaletasuna bultzatzeko

Helduei euskaraz irakurtzeko gogoia pizteko eta urrats horretan laguntzeko, 50 bat liburu aurkeztu ditugu sareko katalogo interaktibo baten bidez, <http://irakur.eke.eus> helbidean. Gai ezberdinak jorratzen dituzte eta euskara maila bakoitzari egokituak dira.

«ELKARTUZ - Literatura» lantaldeko kideek egin dute hautaketa, IKAS Euskal pedagogia zerbitzuaren laguntzarekin.

Irazki batzuen arabera bilaketak egin daitezke (hizkuntza maila, euskalkia, generoa, gaia).

Transmisiorako plataforma didaktiko bateruntz

Eskoletako publikoei begira, baliabide-plataforma esperimentalak sortzeko lehen urratsak emanak izan dira eke.eus atariaren baitan.

Plataforma honek ibilbide/dispositiboaren haritik sortuko eta erabiliko diren dozier/euskarri pedagogikoak aterpetuko ditu.

Horiek hola, «Euskal kultura bizi ezan/ezak» programari dagozkion zorbait baliabide sarean eman dira 2025ean, kabalkadari eta Iparraldeko artista garaikide batzuei (Pantxix Bidart, Maika Etxekopar) buruzkoak hain zuzen ere.

www.eke.eus atariaren 2025eko estatistikak

Oharra: GA4 tresnaren bidez bildu ondoko datuek tendentzia orokorrak ematen dituzte. Egiazko bisita kopuruekin aldeak izan daitezke, batez ere cookien politikaren eta datu pertsonalen kudeatzeko erabiltzen dugun tresnaren berezitasunak direla-eta. Are gehiago jakinez bisitarien onarpena biltzeko zerbitzua aldatu dugula 2025eko urte hondarrean. Horiek konduhan harturik, ezinezkoa da 2024. urteko datuekin konparaketa fidagarriarik egitea.

Sesioak (bisitak): 250.592

Erabiltzaile aktiboak: 182.913

Engaiamendu tasa: 48,55%

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa beste lankidetzak batzuen barnean (Dantzan, Maritzuli eta Oxtikenekoak elkarteak, IKAS pedagogia zerbitzua, Iparraldeko Abesbatzen Elkarteak, besteak beste).

25. EKINTZA

Mintzoak.eus ataria, euskal ahozko memoriaren altxorren multimedia erakusleihoa

Webgunearen birmoldatze grafikoa eta funtzionalaren prestaketa lanak

Atariko erabiltzaile desberdinen iradokizunetan oinarrituz, Mintzoak.eus webgunearen itxura eta, bide batez, funtzionalitateen hobetzeko 2026ko arraberritze lanen kargu-txostena landu da.

Lekukotasun pasarte berrien sareratzea

«Eleketa, Iholdi-Oztibarre» erakusketarako hautatu bideo-zatien eta erreportaje muntaketen (122 bideo-kapsula eta 40 erreportaje tematiko euskarazko eta frantsesezko azpiztituluekin, 420 lekukotasun-pasarte) sareratzea burutu da.

Beste bideo-lekukotasun eta biografia elebidun frango sareratu dira (betiere ahozko memoriaren kontsultagunearen lan-ildoak segituz, «Eleketa» funtsaren tokian-tokiko balorapenekin bat eginez edo elkartekideek eraman bilketa-proiektuei uztartuz).

«Eleketa» funtsari dagokionez, lekuko fitxa bakoitzean biografia itzulua da orain eta guttienez bideo bat kontsultagarri da.

Zorbait kantu-bilduma eman dira ere sarean: alde batetik Senpere aldean Oxtikenekoak eta Euskal kultur erakundeak grabatutakoak, eta bestetik, Juan Indaburu familiakoek utzitakoak (Sara-Zugarramurdi).

Lekukotasun-bildumen sortzea

Lapurdikoa ihauterien biziberritzeari eta Olentzero pertsonari buruzko lekukotasun-bildumak (gaika antolatua eta azpiztituluz hornitu lekukotasun-zati multzoak) apailatu ditugu.

www.mintzoak.eus atariaren 2025eko estatistikak

Oharra: GA4 tresnaren bidez bildu ondoko datuek tendentzia orokorrak ematen dituzte. Egiazko bisita kopuruekin aldeak izan daitezke, batez ere cookien politikaren kudeatzeko erabiltzen dugun tresnaren berezitasunak direla-eta.

Sesioak (bisitak): 7.080 (+ %24 / 2024)

Erabiltzaileak (bisitariak): 4.134 (+ %42 / 2024)

Ikusitako orrialde kopurua: 36.773 (+ %13,54 / 2024)

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, Pirinio-Atlantikoetako departamenduko artxibotegiarekin partaidetzan, «Eleketa» funtsaren balorapenari dagokionez, gainerateko artxibo-kontsultagarrien jabeen laguntzarekin.

26. EKINTZA

«Eleketa» funtsaren balorapenak lurraldeka eta gaika«Eleketa» bilketaren 20 urteetako erakusketa proiektuaren abiatzea

«Eleketa» bilketa programaren hogeigarren urtemugaren ospatzeko ekoiztu nahi genuen erakusketaren nondik-norakoak (kargu-txostenaren idazketa) zehazten hasi gara 2025ean, jakinez asmoa litekeela 2027ko urtean zehar zabaltzea.

Aurreikusitako gaia: azken 70 urteetako jendarte aldaketa handiak Ipar Euskal Herrian.

«Eleketa, ahozko oroimenak» bornen ibiltaritzak
«Eleketa» multimedia dorreak prestatu eta egokitu ditugu leku desberdinetan aurkezteko gisan:

- 2025eko urriaren 1etik azaroaren 1era Sarako leizeetan: Sarako ahozko oroimenari buruzko lekukotasunak («Eleketa» funtsa, Maite Barnetche artxiiboak).
- 2025eko abenduaren 3tik 28ra Biarritzeko mediatekan: Olentzero mitoari buruzko erakusketa («Eleketa» funtseko lekukotasunak, Olentzeroren lagunak elkarteko funtsak).
- 2026ko urtarrilaren 16tik 31ra Donibane Lohizuneko Pavlovsky etxean: bertsoaritzari buruzko lekukotasunak («Eleketa» funtsa, Maite Barnetche artxiiboak).

Bestalde,

- «L'Atelier Les Jours à Venir» taldeak eta EKE-k elkarlanean Bidarteko ondareari buruz eraman ikerlanaren berri eman da Toki-toki mediatekan 2025eko apirilean (Jeannot Goyhenetche eta Jana Mari Mendiboure herritaren lekukotasunak agerian ezarriak zirenean, bideo-azpitoludun batekin).
- Lekukotasun-zatiak apailatu ditugu (eiherazainen eta latsarrien gaiari buruzkoak) 2025eko urriaren 17tik azaroaren 29a arte Ospitalea Irisarriko heziketa zentroan aurkeztu den «Mélusine, gure ondare ttipia» erakusketan kontsultagarri izateko gisan. Karia hortara, materiala prestatu dugu ere.
- Ospitalea heziketa zentroan beti, Departamenduak 2026an estreinatu duen euskal mitologiari buruzko erakusketaren sortzeko urratsetan laguntza ekarri dugu ere.

«Eleketa» irrati-kronikak

Hilabeteen behin Gure Irratiak hedatzen dituen «Eleketa» irrati-kroniken ekoizpenean parte hartu dugu

azken urte batez, 2025eko ekaina arte. Karia hortara, Terexa Lekumberri antropologoak Lapurdin bildu lekukotasunak agerian eman ditu, baita komentatu ere. Emankizunen artxiiboak Mintzoak.eus atarian gordeak dira ere.

«Eleketa» funtsaren eta programaren balorapena bultzatzeko urratsak

- «Ici Pays Basque» irrati emankizuna: Euskal etnopolaren eta «Eleketa» programaren aurkezpena.
- Taupa euskaltzaleen mugimenduak bere 2025eko «Taupada» jardunaldia irailaren 25ean antolatu zuen Durangoko Plateruenean, «Ohituren biziberritzea: Komunitategintza aktibatze giltza» gaia ardatz harturik. Euskal kultur erakundea hizlarien artean egon zen (Argitxu Camus Etchecopar eta Mathias Olasso), Lapurdiko ihauteriei buruzko lau lekukotasun-zati agerian emanen.
- *Non habila Perkain?* dokumentalaren ondotik, irailaren 13an Historiaren transmisioaz antolatu zen mahai-inguruan parte hartu genuen.
- *Etnologo gazte* dispositiboa aurkeztu genuen FICAB zinema jaialdian Irunen (2025eko azaroaren 10-15a).

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa egitura eta kolektibitate desberdinekin (Ospitalea heziketa zentroa, herrietako kultura zerbitzuak e.a.), Pirinio-Atlantikoetako Departamenduko artxiobotegiarekin elkarlanean, «Eleketa» funtsari dagokionez.

2.5 Aktualitate artistiko eta kulturala baloratu

27. EKINTZA

SORMEN - Euskal sorkuntza kultural eta artistikoari buruzko sareko aldizkariaren argitaratzea

Ipar Euskal Herrian euskal kultura dinamizatzen eta arraberritzen laguntzen duten ekimenen nabarmentzeko, SORMEN izeneko artikulu-hari bat elikatzen dugu eke.eus atarian.

11 artikulu argitaratuak izan dira 2025ean, Guillaume Fauveau eta Séverine Dabadie argazkilarien parte hartzearekin, baita Bada.eus gazte komunikabidearen eta Kanaldude.eus telebistaren partaidetzarekin.

EKE-k sostengatzen dituen edota gure elkartekideek eramaten dituzten sorkuntza lan eta prozesu ezberdinei buruzko multimedia kapsula hauek artikuluz, bideo-elkarrizketez eta argazki-erreportajez osatuak dira. Www.sormen.eke.eus gunean kontsultagarri dira.

2025ean, sail berri bat estreinatu da, zeinetan, urtean zehar, Ipar Euskal Herriko argialetxeek edota musikariek/idazleek plazaratu diskoak eta liburuak (euskaraz edo elebidunak) agertzen diren.

Partaidetza dinamika: EKE-k kudeatu egitasmoa, kultur eragile eta multimedia eduki sortzaile batzuen parte hartzearekin.

28. EKINTZA

Euskal kultur eta arte aktualitatearen sareko agenda baten zabalitzea

Kultur eragileek eman datuetatik abiatuz eta euskarri desberdinetako prentsa/sare sozialen errepaso baten laguntzaz, EKEk egunero ipar Euskal Herri mailako euskal kulturaren agenda osatzen du (mintzaldiak, kontzertuak, animazioak...).

Era berean, Eusko Jaurlaritzaren «Kulturklik» atariarekin dugun partaidetzari esker, hego Euskal Herriko gertakarien hautaketa bat eskaintzen dugu, gure agendako atal berezi batean, «Kulturklik» atariak bere aldetik, ipar Euskal Herriko gertakarien berri eskaintzen duelarik, EKEren agendan oinarrituta.

«Kultura familian» agendaren garapena segitu dugu 2025ean, euskara sail desberdinetan ikasten duten haurren familiei zuzendua.

Elkarlan bat abiatu dugu ere, www.on.eus atarian, agendan zintzilikatzen ditugun euskara gaitzat duten gertakariak ager daitezen.

Azkenik, herri elkargoko turismo bulegoarekin partaidetza bat alhan eman dugu, SORMEN ataleko artikuluak edota agendako gertakariak bi astetarik behin egitura horrek hemengo herritarrei zabalitzen dien newsletterean aipatuak izan daitezen.

Orotara, 2025ean agendan sartu ziren gertakarien kopurua:

1881 (1508 Ipar Euskal Herrian kokatuak).

Estatistika gehiago <http://agenda25.eke.eus> weborrian.

Partaidetza dinamika: EKE-k kudeatu egitasmoa, Kulturklik.eus atariarekin elkarlanean agendako datuen partekatzeari eta zabalpenari begira.

2. Transmititu eta komunikatu

2.5. Aktualitate artistiko eta kulturala baloratu

29. EKINTZA

Artisten eta kultur eragileen sareko erreperitorioaren optimizazioa

Elkartekideen fitxak eguneratuak izan dira, urtero daramagun datu-bilketaren ondorioz.

Bestalde, datuak babesteko Europako erregelamendu orokorrek bat egin nahian, eta erreperitorioa ahalik eta gaurkotuen atxikitzeko asmoz, gainerako kultur eragileei zuzendu eguneraketa kanpaina bururatu da.

Partaidetza dinamika: EKE-k kudeatu erreperitorioa, kultura eragileen parte hartzearekin.

30. EKINTZA

Komunikazioaren garapena sare sozialetan eta hedapen zerrendetan

Euskal kultur erakundearen egitasmo orokorraz komunikatzeko xedearekin, social-media estrategia ondoko sareetan garatu da 2025ean: Facebook, Instagram, Mastodon, LinkedIn eta Google Business. Hau dena, argitalpenen publikazioa astero programatuz.

Bestalde, lantalde profesionaleko kide bakoitzaren email perfilean agertzen den izenpeduraren bidez, hainbat ekitaldi/ekintza baloratuak izan dira ere.

EKEren aktibitateei buruzko albiste haria hilabeteroko berripaperaren bidez hedatua eta agerian emana izan da ere (3000 harpidedun baino gehiago). Tresna horri esker gainera, partaide ditugun instituzio eta elkarten proiektu deialdien berri, baina ere formakuntza proposamenen eta ekarpen deialdien berri ematen dugu. Informazio zaintza berezia eramaten dugu horretarako.

2025eko zenbait estatistika (bilakaera / 2023):

- Facebook: 7281 harpidedun (+ %14,61)
- Instagram: 3931 harpidedun (+ %40,90)
- LinkedIn : 976 harpidedun (+ %28,59)

Partaidetza dinamika: EKE-k egin sare sozialen kudeaketa.

Diru bilana

2. ARDATZA - TRANSMITITU & KOMUNIKATU

		Koordinazioa eta perspektibak	34461
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	34461
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	0
2.1. Euskal kulturaren transmisiorako estrategia bultzatu	12	"Euskal kultura bizi ezan/k" euskal kulturaren sentsibilizazio eta transmisio ibilbideen sortzea	64033
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	46250
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	17783
	13	"Euskal kultura bizi ezan/k" mugaz gaindiko proiektua	37231
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	29107
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	8124
	14	Euskal kulturaren transmisioari eta euskararekiko loturari buruzko gogoeta instituzionaletan parte hartzea	10037
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	10037
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	0
2.2. Eskolei zuzendutako sentsibilizazio dispositiboak bultzatu	15	"Zineskola" dispositiboa	7700
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	6703
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	997
	16	"Collège au cinéma" dispositiboa	3856
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	1856
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	2000
	17	"Idazleak Ikastetxeetan" dispositiboa	8209
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	5210
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	2999
	18	Booktrailer lehiaketa	10939
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	7656
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	3283
	19	"Musikariak Ikastetxeetan" dispositiboa	12638
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	2618
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	10020
20	"Etnologo gazte" dispositiboa	2585	
	<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	2585	
	<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	0	
2.3 Publiko berezi bati zuzendutako sentsibilizazio dispositiboak bultzatu	21	Liburugintzako profesionalen zuzendu egunen antolaketa	6240
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	5257
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	983
	22	Deskubritze tailerren antolaketa presondegi munduan	1717
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	1457
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	260
	23	"Arteen Arteen": praktika eta sorkuntzarako ekitaldia	9356
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	5356
		<i>Proiektuari doazkion beste gastuak</i>	4000

Diru bilana

2.4 Eduki editorializatuak sortu euskal kulturari sentsibilizatzeko eta heitzeko	24	Eke.eus ataria, euskal kulturaren aldeko sentsibilizazioaren eta heziketaren baliabide-plataforma	18689
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	10488
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	8201
	25	Mintzoak.eus ataria, euskal ahozko memoriaren altxorren multimedia erakusleioa	25544
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	16637
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	8907
	26	"Eleketa" funtsaren balorapenak lurraldeka eta gaika	18896
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	16709
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	2187
2.5 Aktualitate artistiko eta kulturala baloratu	27	SORMEN - Euskal sorkuntza kultural eta artistikoari buruzko sareko aldizkariaren argitaratzea	18554
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	13334
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	5220
	28	Euskal kultur eta arte aktualitatearen sareko agenda baten zabaltzea	23708
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	23708
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	0
	29	Artisten eta kultur eragileen sareko errepertorioaren optimizazioa	8705
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	8705
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	0
	30	Komunikazioaren garapena sare sozialetan eta hedapen zerrendetan	20113
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	20113
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	0

	OROTARA 2. ARDATZA :	343 211 €
	<i>Giza aberastasunaren balorazioa :</i>	268 247 €
	<i>Proiektuei doazkien beste gastuak :</i>	74 964 €

3. Egituratu eta lagundu

3.1. Euskal kulturaren ekosistema egituratu

- 31. ekintza - ELKARTUZ desmarxa kolektiboaren animazioa segitzea: Herri kulturaren transmisioa azkartu
- 32. ekintza - Elkartekideen jarraitzeko programa baten plantan ezartzea
- 33. ekintza - Artisten profesionalizazioa laguntzeko ibilbide baten asmatzea

3.2. Elkartekideen proiektuak sostengatu

- 34. ekintza - Gogoeta eta osagarritasun lana urteko egitasmo deialdiaren inguruan
- 35. ekintza - ELKI dispositiboaren bidez, sorkuntza amaturra laguntzea
- 36. ekintza - PASA dispositiboaren bidez, herri-transmisio proiektuak laguntzea
- 37. ekintza - HEDA dispositiboaren bidez, lurraldeko ekitaldiak laguntzea
- 38. ekintza - MUGI dispositiboaren bidez, mugikortasuna laguntzea Iparraldetik kanpo

3.3. Sorkuntza bultzatu

- 39. ekintza - Literatura sorkuntza egonaldi bikoitzaren antolaketa
- 40. ekintza - «EKE-Elkar literatura beka» berritzea
- 41. ekintza - Musika sorkuntza egonaldi bikoitzaren antolaketa

3.4. Hedapena sustatu

- 42. ekintza - *Ibilki* dispositiboaren zabalpena
- 43. ekintza - Euskal zinemaren programazioari laguntza
- 44. ekintza - Hego Euskal Herrirako mugikortasuna sostengatzea partaidetza desberdinei esker

DIRU BILANA

3.1 Euskal kulturaren ekosistema egituratu

31. EKINTZA

ELKARTUZ desmarta kolektiboaren animazioa segitzea : Herri kulturaren transmisioa azkartu

Elkarteen eta artisten arteko topaketen koordinazioa eta animazioa:

- **Literatura:** 3 topaketa, helduei zuzendu irakurketaren aldeko kanpaina baten aitzin-itxuratzera eraman dutena, liburu gomendio zerrenda baten sorkuntzarekin (<https://www.eke.eus/eu/kultura/literatura/irakurketa-gomendioak>).
- **Antzerkia:** 2 topaketa antzerki herrikoiko eragileekin, testu bilketa kanpaina baten abiatzea eta euskarri pedagogien sorkuntza ahalbidetu dutenak.
- **Dantza eta dantzatzeko musika:** laguntza IDB euskal dantza federazioari bere barne berregituraketan.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, elkarteekin, artistekin eta lurraldeko kultur partaideekin partaidetzan.

32. EKINTZA

Elkartekideen jarraitzeko programa baten plantan ezartzea

Sare buruekin (IDB, Bertsularien Lagunak eta Herri Soinu) jarraipen kolektibo baten abiatzea Tokiko Jarraipen Dispositiboaren bidez (DLA), partekatuak diren erronken identifikatzeko, lankidetzak aukerak aztertzeko eta mutualizazio pistak ateratzeko.

Bestalde, Uztaritze zentroan egitura ezberdinen artean espazio partekatu baten eraikitzeari buruzko gogoeta.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, IDB, Bertsularien Lagunak eta Herri Soinu sareburuekin partaidetzan. Jarraipen kolektibo, Profession Sport et Loisirs 64 egiturekin partaidetzan (lurralde honetan Tokiko Jarraipen Dispositibo [DLA] eramaten duen egitura).

33. EKINTZA

Artisten profesionalizazioa laguntzeko ibilbide baten asmatzea

Euskal Hirigune Elkargoko kultura zerbitzuarekin gogoeta baten abiatzea ibilbide baten eraikitzearen inguruan, profesionalizatu nahi duten artista amateurrentzat.

Partaidetza dinamika: EKE-k eta Euskal Hirigune Elkargoak elkarrekin eraman proiektua.

3.2 Elkartekideen proiektuak sostengatu

34. EKINTZA

Gogoeta eta osagarritasun lana urteko egitasmo deialdiaren inguruan

Partaide bakoitzaren esku hartze eremuen eguneratzea eta osagarritasun logiken inguruko lana, partaide ezberdinekilako topaketak antolatuz edo horietan parte hartuz.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, lekuko elkargoetako teknikariekin eta zabalago EKE-ko COTEC instituzionalarekin lankidetzan.

35. EKINTZA

ELKI dispositiboaren bidez, sorkuntza amaturra laguntzea

Euskal Hirigune Elkargoarekin batera, kide diren elkarteen sorkuntza proiektu amaturrak laguntzea (ikus eranskinean 2025ean lagunduak izan diren elkartekideen egitasmoen zerrenda).

Partaidetza berezi bat eramana izan da Xiberoko pastoralaren eta Nafarroa Behereko kabalkadaren antolatzaileak diren Etxahun eta Bildu elkarteekin. Abantzu bat proposatua izan zaie.

Abantzu horren xedea gertakariaren aitzineko diru gastuen parte bat estaltzea zen. Diru hori itzulia izan delarik, 2026ko Sohütako pastoralara eta Angeluko kabalkada modu berean lagunduak izan dira.

Partaidetza horrek, halaber, boluntarioen eta parte-hartzaileendako laguntza bat proposatzen zuen, Plazara kolektiboaren eskutik, ekitaldi horien antolaketa euskararen erabilpena bultzatzeko.

Azkenik, Etxahun elkartearentzat, partaidetza horrek kultura aberasteko desmarxa bat proposatzen zuen,

Xiberoko pastoralaren ahozko oroimenei buruzko multimedia dorre bat instalatuz.

Partaidetza dinamika: EKE-k eta Euskal Hirigune Elkargoak eraman egitasmoa, elkartekideekin partaidetzan.

Partaidetza berezia: EKE-k eraman egitasmoa, Plazara elkartearekin eta kide diren elkarteekin partaidetzan.

36. EKINTZA

PASA dispositiboaren bidez, herri-transmisio proiektuak laguntzea

Laguntza EKE-ko kide diren elkarteen transmisio eta sentsibilizazio proiektuei (ikus eranskinean 2025ean lagundutako elkartekideen egitasmoen zerrenda).

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, elkartekideekin partaidetzan.

37. EKINTZA

HEDA dispositiboaren bidez, lurraldeko ekitaldiak laguntzea

Laguntza EKE-ko kide diren elkarte antolatzaileen proiektuei, non ere euskal kultura agerian emana den (ikus eranskinean 2025ean lagunduak izan diren elkartekideen egitasmoen zerrenda).

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, Euskal Hirigune Elkargoaren laguntza dispositiboekin osagarritasunean, eta elkartekideekin partaidetzan.

38. EKINTZA**MUGI dispositiboaren bidez, mugikortasuna laguntzea Iparraldetik kanpo**

Laguntza EKE-ko kide diren elkarten proiektuei, hego Euskal Herrira joateko (ikus eranskinean 2025ean lagunduak izan diren elkartekideen egitasmoen zerrenda).

Kide diren elkarteak beren gaitasun garatze proiektuetan laguntzea, European egonaldiak eginez, EKE parte den eskualdeko partzuergoan integratuz.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman egitasmoa, Euskal Hirigune Elkargoaren laguntza dispositiboekin eta Etxepare euskal institutuaren mugikortasunerako laguntzekin osagarritasunean, eta elkartekideekin partaidetzan.

Europako mugikortasun proiektuak: EKE-k eramana, Combustible eta Atabalekin batera osatzen duen partzuergoak lortu ERASMUS+ akreditazioaren kariatara.

3.3 Sorkuntza bultzatu

39. EKINTZA

Literatura sorkuntza egonaldi bikoitzaren antolaketa

Euskarazko idazketa egonaldiaren 15. edizioaren ko-antolaketa: Hendaiaiko Abbadia eremuko Nekatoenea etxean hilabete batez (2025eko irailean), eta Pasai Donibaneko Hugoenea egoitzan bigarren hilabete batez (2025eko azaroan).

Aurtengo gaia: XVII. mendeko sorginkeria, sinesmenak eta tradizioak.

Irabazlea: Amaia Carrere (Baiona, 1997), marrazkilari, ilustratzaile eta komiki egilea.

Egonaldien ondotik, hiru topaketen antolaketa Amaia Carreren lana deskubritzeko:

- Baionako elkar liburudendan, 2025eko urriaren 28an
- Pasai-Donibaneko Ubera liburutegian, 2026ko otsailaren 12an
- Hendaiaiko Asporotsttipin, 2026ko martxoaren 10ean

Partaidetza dinamika: EKE ko-antolatzaile, CPIE Euskal Itsasbazterra eta Euskal Idazleen Elkartearekin partaidetzan.

40. EKINTZA

«EKE-Elkar literatura beka» berritzea

Literatur sorkuntza sustatzeko bekaren hirugarren edizioaren zabaltzea udaberrian.

2025eko deialdiaren gaia: helduendako narrazioa (eleberria edo ipuin bilduma izan daiteke).

Irabazlea: Eneko Bidegain Aire (Baiona, 1975), euskal ikasketetan doktorea, Euskaltzain urgazlea eta hainbat hedabidetan aritutako kazetari ohia, baita ere zenbait eleberriren idazlea.

Argitalpena, 2026 urte bukaerako aurreikusia da.

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman proiektua, elkar Fundazioarekin eta Baionako elkar argialetxearekin partaidetzan.

41. EKINTZA

Musika sorkuntza egonaldi bikoitzaren antolaketa

«Iparhots» musika sorkuntza egonaldiaren 3. edizioaren ko-antolaketa, artisten profesionalizazioa laguntzeko.

Irabazlea: Donibane Lohizuneko LUMI taldea.

Egonaldien egunak eta tokiak: Azpeitiako Dinamo sormen gunean, urriaren 13 eta 14an / Biarritzeko Atabalen, azaroaren 24 eta 25ean - Ateratze kontzertua: azaroaren 28an Atabalen.

2026ko lehendabiziko sei hilekoan, LUMIk kontzertua eskainiko du Bartzelonako Euskal Etxean.

Partaidetza dinamika: EKE ko-antolatzaile Musika Bulegoa, Atabal aretoa, Kulturaz Kultur Kooperatiba, eta Bartzelonako Euskal Etxearekin partaidetzan.

3.4 Hedapena sustatu

42. EKINTZA

| **libiki dispositiboaren zabalpena**

Laguntza lurraldeko herri eta liburutegi/mediatekei programazio mailan (aholkularitza, diru partaidetza, komunikazioa).

Zenbaki batzuk:

- 30 konpainia, talde, idazle edo mintzalari programatuak (iparraldekoak zein hegoaldekoak)
- 36 emanaldi/topaketa eta 6 zine gualdi kanpoan
- 4 500 ikusle inguru
- Sorkuntza motak: antzerkia, haur antzerkia, dantza, kantua, musika, zinema, literatura

Programazioa:

- **Denak plazara!**, Pontx - Otsailaren 8an, Kanbon
- **Maxkaroa**, Txingili'K - Otsailaren 9an, Donibane Lohizunen
- **Magma mia**, Beatriz Egiazabal - Martxoaren 4an, Hendaian
- **Hiru emazte kantari gogoan**, Eusko Ikaskuntza - Martxoaren 8an, Maulen
- **Euskaldunen jatorria, historia eta irria**, Zelako elkarte - Martxoaren 15ean, Azkainen
- **Euskaldunen jatorria, historia eta irria**, Zelako elkarte - Martxoaren 28an, Kanbon
- **Ilauna**, Bilaka - Apirilaren 12an, Donapaleun
- **Badoa**, Neskena - Apirilaren 12an, Donapaleun
- **Loratzen**, Bat Egin & Alabena - Apirilaren 20an, Azkainen
- **Pantzo Mantshow**, Pantzo Hirigarai / Ildoka elkarte - Apirilaren 29an, Baionan
- **Belarriprest**, Amaia Bono - Maiatzaren 17an, Azkainen
- **Eukalyptus**, Jon Ander Urresti - Maiatzaren 24an, Hendaian
- **Irati filma**, La Fidèle - Maiatzaren 24an, Saran
- **Otempodiz**, Ertza Konpainia - Maiatzaren 25ean, Hendaian
- **Denak plazara!**, Pontx - Ekainaren 8an, Urruñan
- **Pliisti plasta**, Alabena Konpainia - Ekainaren 8an, Urruñan
- **Fla Fla Fla**, Dantzalai Konpainia - Ekainaren 8an, Urruñan

- **Txiotxioka**, Elirale Konpainia - Ekainaren 8an, Urruñan
- **Altxorraren bila**, Bat Egin - Ekainaren 8an, Urruñan
- **Agur Etxebeste! filma**, Irusoin - Uztailaren 16an, Ortaizen
- **Irati filma**, La Fidèle - Uztailaren 18an, Maulen
- **Film labur gualdia** - Uztailaren 19an, Arrosan
- **Errimak**, Haatik Konpainia - Uztailaren 21ean, Donapaleun
- **Bizkarsoro filma** - Agorrilaren 20an, Baionan
- **Irati filma**, La Fidèle - Agorrilaren 22an, Ainhoan
- **Badoa**, Neskena - Irailaren 4an, Kanbon
- **Ekhi Lambert** - Irailaren 4an, Kanbon
- **Hiru emazte kantari gogoan**, Eusko Ikaskuntza - Irailaren 26an, Urruñan
- **Jurgi Ekiza** - Urriaren 28an, Baionan
- **Zorretan**, Hika Konpainia - Azaroaren 2an, Hendaian
- **Habia** - Azaroaren 8an, Donapaleun
- **Elimberri** - Azaroaren 15ean, Donapaleun
- **Miñan**, Artedrama - Azaroaren 21ean, Hiriburun
- **Miñan**, Artedrama - Azaroaren 30ean, Urruñan
- **Adriene Bergson-Johnson**, Itzuli Konpainia - Abenduaren 2an, Baionan
- **Miñan**, Artedrama - Abenduaren 28an, Saran

Mediateketan:

- **Biharraren Hegietan**, Maddi Sarasua-Lascaray - Maiatzaren 24an, Kanbon
- **Poesia tailerra**, Kiribil konpainia - Ekainaren 24an, Kanbon
- **Kamishibai tailerra**, Iñaki Martiarena Otxotorena - Uztailaren 12an, Kanbon
- **Tor Magoa**, Aitor Bilbao Beramendi - Irailaren 17an, Biarritzen
- **Mundua pitzatuta dago baina hantxe gabilta oinez**, Ttantaka teatroa & Harkaitz Cano - Azaroaren 22an, Baionan
- **XoOoo!**, Iduzkilore - Abenduaren 3an, Kanbon

Partaidetza dinamika: EKE-k eraman proiektua, Euskal Hirigune Elkargoak hedapenarentzat dituen laguntza dispositiboekin osagarritasunean, eta nahi duten herri nahiz mediatekekin partaidetzan.

43. EKINTZA

Euskal zinemaren programazioari laguntza

Estreinaldiak programatzeko laguntza, Cinéma & Cultures eta Cinévasion elkarteek kudeatzen dituzten lurraldeko 9 zinema geletan [Atalante (Baiona) / Le Sélect (Donibane Lohizune) / Haritz Barne (Hazparne) / L'Aiglon (Kanbo) / Maule Baitha (Maule) / Saint-Louis (Donapaleu) / Le Vauban (Donibane Garazi) / Les Variétés (Hendaia) / Getari Enea (Getaria)], zuzendarien nahiz aktoreen presentziarekin ondoko filmen estrenaldientzat: *Indarkeriaren oi(h) artzunak*, *Itoiz udako sesioak*, *Faisaien irla*, *Olatuak*, *Cambium*, *Tasio*, *Karmele*, *Jone batzuetan*, *Focus Irati Gorostidi*, *Focus Kote Camacho*, *Muga* eta *Kotoni laburrak*, *Marco l'énigme d'une vie*.

Partaidetza dinamika: Cinévasion eta Cinéma et Cultures egiturek eraman proiektuak. EKE, proposamen iturri eta diru partaidea.

44. EKINTZA

Hego Euskal Herrirako mugikortasuna sostengatzea partaidetza desberdinei esker**Iparraldea Bertan (Donostia)**

Sostengua ipar Euskal Herriko artisten sorkuntzak Koldo Mitxelena Kulturunearen Santa Teresa konbentuan aurkezteko:

- Gastibeltza: Euskal zinema Iparraldetik - Otsailaren 25ean.
- Hiru emazte kantari gogoan - Martxoaren 4an.
- Bekatu - Martxoaren 11n.
- Mattin Lerrisa - Martxoaren 18an.

Partaidetza dinamika: EKE Gipuzkoako Diputazioaren proposamen iturri.

Loraldia festibala (Bilbo)

Bilboko festibalean ipar Euskal Herriko artistak programatzeko laguntza:

- *Xiberoa kantuz Loraturik* - Maddi Oihenart, Beñat Achiary, Ihitz Iriart, Julen Achiary, Mixel Etxekopar, Eliane Héguiphall, Pierre Vissler eta Jordi Cassagne - Martxoaren 13an
- Idoia Tapia + Bloñ - Martxoaren 21ean
- *Palestinaren mina*. Kontzertua naturan - Maddi Oihenart, Miren Zeberio eta Juantxo Zeberio - Martxoaren 22an
- *Lurretik Iurrera* - Darlene Gijuminag (Quebec Mig'mawag), Claudine Arhancet eta Mixel Etxekopar - Martxoaren 26an

Partaidetza dinamika: EKE proposamen iturri eta «Loraldia» kultur elkartearen diru partaidea.

LABO XL festibala (Donostia)

Ipar Euskal Herriko dantzariari laguntza, «Dantza» festibalean Tabakalera kultur gunean programatuak izateko:

- Berritza elkarteak lagundu «Dantza» emanaldia - Azaroaren 15ean.
- Ibawa kolektiboaren «Gaua» ikusgarriaren emanaldia - Azaroaren 16an.

Partaidetza dinamika: EKE proposamen iturri eta NODE kultur elkartearen diru partaidea.

Durangoko Azoka (Durango)

Laguntza ekonomiko eta teknikoa 2025eko abenduaren 5etik 8ra iragan den Durangoko azokaren 60. edizioan parte hartzeko: erakusmahaien alokailurako laguntza, garraio eta aterbe gastuen zati baten ordainketa, ekitaldien antolaketa azoka denboran.

16 egituren parte hartzea:

- Argitaletxeak: Gatzuzain, Herrima, Ikas, Maiatz, Zortziko.
- Diskoetxe edo musika elkarteak: Maider, Saroia (Kalakan), Karma, Usopop diskak, Xutik, Maita kultura.
- Beste egiturak: Iparraldeko ikastolak (Seaska), Herri Urrats, Ekialdeko estudioa, Euskaltzaleen biltzarra, Giltzaera.

Ipar Euskal Herriko urteko literatur eta musika ekoizpenak biltzen dituen sareko katalogo baten ekoizpena (euskarazko 55 berritasun plazaratuak 2025ean).

Ipar Euskal Herriko prentsaurrekoaren antolaketa. Aurkezpena Gerediaga elkartearekin eta azokan parte hartzen duten Iparraldeko ekoizleekin.

«DA!Pro» ekitaldiari buruzko informazioaren zabaltzea.

Partaidetza dinamika: EKE koordinatzaile, Azoka antolatzen duen Gerediaga elkartearen partaidetzarekin.

Diru bilana

3. ARDATZA - EGITURATU & LAGUNDU

		Koordinazioa eta perspektibak	21427
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	21427
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	0
3.1. Euskal kulturaren ekosistema egituratu	31	ELKARTUZ desmarta kolektiboaren animazioaren segitzea	38612
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	33681
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	4930
	32	Elkartekideen jarraitzeko programa baten plantan ezartzea	10381
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	5121
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	5260
	33	Artisten profesionalizazioa laguntzeko ibilbide baten asmatzea	1193
		<i>Giza aberastasunaren balorazioa</i>	1193
		<i>Proiektuari doazkien beste gastuak</i>	0
